



plataforma
de infancia
españa

“Haurtzaro eta pobrezia”,
prozesu partehartzailea



AURKIBIDEA

“Hurtzaro eta pobrezia”,
prozesu partehartzailea

01

Sarrera	3
1.1. Haurren Plataformari buruz	3
1.2. Parte hartzeko prozesuari buruzkoa: “Hurtzaroa eta pobrezia”	3

02

«Hurtzaroa eta pobrezia» jardueren aurkezpena	4
2.1 Laneko materialei buruz	4
2.2 Jarduerari buruz	5
a) Nola eta zenbat jarduera egin behar ditugu?	5
b) Nola jaso nesken eta mutilen iritziak?	6
c) Nola helarazi neska-mutilen iritziak, ondorioak eta proposamenak Haurren Plataformari?	6
d) Zer egiten da ondorioekin?	6

03

Jardueren laburpen-taula	7
6 - 8 urte	7
9 - 12 urte	8
13 - 17 urte	9

04

Ohiko galderak	10
----------------	----

Edilatuta: Plataforma de Infancia
C/ Escosura 3, local 2. 28015 MADRID
T. 91 447 78 53 - info@plataformadeinfancia.org

Egileak: Ana Isabel García Lamas eta Ana Lamata Carrasco.

Honek koordinatuta: Mabel Taravilla Herrera.

2023ko Maiatza

Argitalpenaren eskubideak partekatutako eskubideak dira, eta, beraz, edozein pertsonak obra askatasunez kopia, banatu eta komunikatu dezake, betiere argitaratzailearen kredituak aitortzen badira eta helburu komertzialekin edo haurren eskubideen aurka erabiltzen ez bada.





01 SARRERA

➔ 1.1 Haurren Plataformari buruz

[Haurren Plataforma](#) haurren 70 erakunde baino gehiagoko sare bat da, haurren eta nerabeen eskubideak sustatu, babestu eta defendatzeko xedea duena.

[Haurren Iritzia](#) estrategiaren bidez, Haurren Plataformak haurren iritziak, proposamenak eta eskaerak biltzen eta sistematizatzen ditu, haurren parte-hartze prozesuen ondorioz.

Eskaera horiek bihurtzen dira Haurren Plataformak nazioan eta nazioartean haurrei eta nerabeei eragin diezaieketen politiken ardura duten agintariei eta erakundeei helarazten dizkien aldarrikapenak.

Haurren ahotsa goratzea Haurren Plataformaren lan-esparruaren parte da, eta [Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioaren](#) funtsezko printzipioetako bat betetzen du: haurren parte-hartzea.

➔ 1.2 Parte hartzeko prozesuari buruzkoa: “Haurtzaroa eta pobrezia”

Haurren Plataformak haur-pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurka borrokatzeko ekimenak sustatzeari dagokionez garatu beharreko ekintzen barruan, haurren partaidetza-prozesu bat garatzea planteatzen da, Espainiako pobreziaren egoerari eta haurren aukera-desberdintasunari buruzko iritziak eta proposamenak jasotzeko.

Prozesu honen **helburu nagusia** neskek eta mutilek pobreziak eta desberdintasunak haurtzaroan eta nerabezaroan duten eraginari buruz duten ikuspegia ezagutzea da. Prozesuaren helburua da herritar gisa parte hartzea, haien ahotsa kontuan hartzea politika publikoen garapenean, eta horiek beren proposamenetatik abiatzea.

Prozesu hau hainbat erakundetako haur eta nerabe taldeei zuzenduta dago, beren iritziak eta proposamenak emanaz parte hartu nahi badute.

Parte hartzeko izena eman behar da [inprimaki](#) honetan.





02 “HAURREN ETA POBREZIAREN” PROZESUAREN EDUKIEN AURKEZPENA



2.1 Laneko materialei buruz

www.infanciaypobreza.org webgunean kontsulta parte-hartzailea egiteko beharrezkoak diren material guztiak daude:

- ➔ Prozesu osoa ezagutzeko **azalpen gida** hau.
- ➔ Neska-mutilekin lan egiteko **jardueren fitxak**, hezkuntza-taldeentzako laguntza izan nahi dutenak, hausnarketarako eta proposamenak egiteko espazioak sortzeko.

Fitxa horiek 4 gai-multzotan sailkatuta daude, eta horietako bakoitzaren barruan, adin-tarteen arabera egokituta daude.

Parte hartzen duten taldeek landu nahi duten blokea edo jarduera aukeratu eta adin-tartearekin bat datozen materialak eskuratu besterik ez dute egin behar beren lotura espezifikoan.

- ➔ **Webinar erako informazio-saioak hezkuntza-taldeentzat**, prozesua zertan datzan eta materialekin nola lan egin jakin nahi duten. Saio horiek egun eta ordutegi desberdinetan egingo dira ekainean zehar, bertaratzea errazteko. Bilera bakoitzerako konexio-jarraibideak jasotzeko, ezinbestekoa da [formulario](#) honen bidez izena ematea. Formulario hori ere webgunean dago.
- ➔ **Aurrez aurreko tailerrak** prozesuan izena eman duten taldeentzat, izena emateko formularioan hala eskatzen badute. Aurrez aurre egingo dira taldeekin, eta langile espezializatuek emango dituzte, talde bakoitzarekin adostutako egunetan. Tailerrak egiteko interesa agertu behar da izena emateko formularioaren bidez, eta koordinazio-taldeak eman behar du azken esleipena.



➔ 2.2 Jarduerei buruz

A. Nola eta zenbat jarduera egin behar ditugu?

Jarduerak **4 gai-multzotan** banatzen dira, eta neska-mutilen bizitzako hainbat eremu jorratzen dituzte. Desberdintasun- eta pobrezia-egoerek eremu horietan eragiten dute gehien:



Gai-multzo bakoitzerako, honako adin-tarte hauetara **egokitutako jarduerak** bat dago diseinatuta:

- ➔ 6 - 8 urte
- ➔ 9 - 12 urte
- ➔ 13 - 17 urte

Jarduera bakoitza independentea da eta modu isolatuan egin daiteke. Taldeek erabaki dezakete proposatutako jarduera bat, bi, hiru edo lau egingo dituzten.

Jarduera guztiak metodologia ludiko batean oinarritzen dira, eta talde parte-hartzaileak haien ibilbide natural gisa «behatzea, iritzia ematea eta proposatzea» logikoa izan dadin diseinatuta daude.

Jarduerak praktikan jartzeko beharrezkoa den informazio guztia biltzen duten fitxen bidez azaltzen dira:

- ➔ Adin-tartea (koloreen arabera bereizita)
- ➔ Izenburua
- ➔ Eremua/gaia
- ➔ Xedea (jarduera mota)
- ➔ Iraupena
- ➔ Materialak
- ➔ Helburua
- ➔ Garapena
- ➔ Hausnarketarako galderak
- ➔ Jarduerarako iradokizunak
- ➔ Ondorioak kargatzeko formulariorako esteka

Jardueretan haurren eskubideen ikuspegia sartzeko, [Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren](#) hainbat artikulua sartu dira, jarduera bakoitzean lantzen den eremuari buruzkoak, pobrezia- eta desberdintasun-egoerak haurren eskubideak betetzeari eragiten diola ulertuta.



B. Nola jaso neska eta mutilen iritziak eta proposamenak?

Hezkuntza-talde bakoitzak neska-mutilen iritziak bildu eta antolatuko ditu, eta www.infanciaypobreza.org webgunean aurkituko duzuen ondorioen [formularioan](#) sartuko ditu, betiere neska-mutilek adierazitako ideiak errespetatuz.

Ondorioak errazago biltzeko, jarduera-fitxako izen bereko atalean, zenbait galdera sartzen dira, eztabaida eta taldearen parte-hartzea errazteko.

Hezitzaile-taldea oharrak biltzen joan daiteke jarduera garatu bitartean, informazio garrantzitsua ez galtzeko eta, jarduera amaitu ondoren, ondorioak idazteko.

C. Nola helarazi neska-mutilen iritzia Haurren Plataformari?

Jasotako ondorioak www.infanciaypobreza.org webgunean eskuragarri dagoen [formularioaren](#) bidez soilik igoko dira.

Ondorioen formularioan erantzun beharreko atalak eta galderak jarduera-fitxetako ondorioen atalean jasotako berberak izango dira, eta 4 multzoetako jarduera bakoitzeko galdera hauek barne hartzen dituzte:

- ➔ Zer ikusi duzu/zer dakizu
- ➔ Zer pentsatzen duzu
- ➔ Zer proposatzen duzu

Informazioa beste dokumentu batean prestatzea gomendatzen da, hezitzaile-taldeek ondorioen formularioan sartu behar dutenean kopian eta itsatsi baino egin ez dezaten.



D. Zer egiten da ondorioekin?










Ondorio guztiak bildu ondoren, Haurren Plataformak sistematizazio-lan bat egingo du, modu ordenatu eta argian antolatzeko, neska-mutilek emandako hitzez hitzeko iritziak errespetatuz.

Sistematizazio hori egin ondoren, ondorio nagusiak bilduko dituen material bat egingo da, eta 2023ko azken hiruhilekoan zabalduko da.



03 JARDUEREN LABURPEN-TAULA










6 ETA 8 URTE

 TITULUA	 HELBURUA	 MOTA / TEKNIKA	 IRAUPENA	 MATERIALAK
 Behar-beharrezko ondasunen eremua	<p>“Ebakigarriak”</p> <p>Behar-beharrezko ondasunak zein diren aztertzea, horietako batzuen faltak pobrezia- edo kalteberatasun-egoeran dauden haurren eta nerabeen bizitza nola baldintzatzen duen aztertzea eta konponbideak proposatzea.</p>	<p>Ebakigarrien bidezko eszenifikazioa.</p>	<p>50´</p>	<p>Fitxa erantsia (pertsonaia ebakigarriekin). Fitxa erantsia (tresna ebakigarriekin). Paper jarraitua. Errotuladoreak.</p>
 Hezkuntza-eremua	<p>“Ikerketa-taldea”</p> <p>Beste pertsona batzuek hezkuntzaren hainbat alderdiri buruz pentsatzen dutenari buruzko iritzia ematea eta ikertzea, bai eta haurren eta nerabeen pobrezia-egoerek hezkuntzako aukera-berdintasunean nola eragiten duten ere, eta hobekuntzak proposatzea.</p>	<p>Inguruko pertsonen egindako galdetegia.</p>	<p>50´</p>	<p>Internerako konexioa duen ordenagailua. Proposatutako bideoen esteka. Erantsitako fitxa (ohar-blokaren txantiloia). Paper jarraitua. Koloretako errotuladoreak. Boligrafoak/arkatzak.</p>
 Aisia- eta kultura-eremua	<p>“Aisialdia marrazten”</p> <p>Haurren eta nerabeen artean eta haien bizitza garatzen den inguruneetan aisialdiko eta kulturako aukerak zerk baldintzatzen dituen hausnartzea eta irtenbideak proposatzea.</p>	<p>Marrazkiak egitea.</p>	<p>50´</p>	<p>Fitxa erantsia (marrazkiak egiteko markoa). Folioak. Arkatzak. Margoak.</p>
 Osasun-eremua	<p>“Stop osasun faltari”</p> <p>Haurtzaroko eta nerabezaroko pobrezia-egoerek osasun-baliabideak eskuratzea nola zailtzen duten, mundu guztiarentzat aukera-berdintasunik ez egotea zerk baldintzatzen duen eta konponbideak proposatzea hausnartzea.</p>	<p>Jazarpen-jolasa, “stop” edo “tulipa” motakoa.</p>	<p>50´</p>	<p>Paper-orriak Errotuladore lodiak. Koloretako post-itak. Boligrafoak edo arkatzak. Aulkiak (1 hitz egingo den osasun-baliabide bakoitzeko).</p>



03 JARDUEREN LABURPEN-TAULA





9 ETA 12 URTE

	 TITULUA	 HELBURUA	 MOTA / TEKNIKA	 IRAUPENA	 MATERIALAK
 Behar-beharrezko ondasunen eremua	“Zer gertatuko litzateke...?”	Behar-beharrezko ondasunak zein diren aztertzea, horietako batzuen faltak pobrezia- edo kalteberatasun-egoeran dauden haurren eta nerabeen bizitza nola baldintzatzen duen aztertzea eta konponbideak proposatzea.	Role playing.	50´	Paper jarraitua. Errotuladorea.k
 Hezkuntza-eremua	“Elkarrizketa zure ikastetxean”	Beste pertsona batzuek hezkuntzaren hainbat alderdiri buruz pentsatzen dutenari buruzko iritzia ematea eta ikertzea, bai eta haurren eta nerabeen pobrezia-egoerek hezkuntzako aukera-berdintasunean nola eragiten duten ere, eta hobekuntzak proposatzea.	Elkarrizketak hezkuntza-komunitateko pertsoneri.	Jarduera hori hainbat saiotan banatuta dago, elkarrizketa batzuk egin behar.	Internerako konexioa duen ordenagailua. Erantsitako fitxa (ohar-blokaren txantiloia). Boligrafoak/arkatzak. Paper jarraitua. Koloretako errotuladoreak.
 Aisia- eta kultura-eremua	“Aisialdiko binetak”	Haurren eta nerabeen artean eta haien bizitza garatzen den inguruneetan aisialdiko eta kulturako aukerak zerk baldintzatzen dituen hausnartzea eta irtenbideak proposatzea.	Gidoia egin eta komiki-tira marraztu.	50´	Fitxa erantsia (komiki-binetaren markoa). Folioak. Boligrafoak. Argazki-kamerak. Inprimagailua. Errotuladoreak. Zeloak.
 Osasun-eremua	“Osasunerako oztopo-lasterketa”	Haurtzaroko eta nerabezaroko pobrezia-egoerek osasun-baliabideak eskuratzea nola zailtzen duten, mundu guztiarentzat aukera-berdintasunik ez egotea zerk baldintzatzen duen eta konponbideak proposatzea hausnartzea.	Oztopo-bidea.	50´	Paper-orriak. Errotulagailu lodiak. Zeloak. Koloreetako post-itak. Boligrafoak edo arkatzak. Oztopo gisa erabili daitezken objektuak: aukliak, sokak, konoak, etab.



03 JARDUEREN LABURPEN-TAULA

13 ETA 17 URTE

	TITULUA	HELBURUA	MOTA / TEKNIKA	IRAUPENA	MATERIALAK
 <p>Behar-beharrezko ondasunen eremua</p>	<p>“Eraikitzen ari diren eszenak”</p>	<p>Behar-beharrezko ondasunak zein diren aztertzea, horietako batzuen faltak pobrezia- edo kalteberatasun-egoeran dauden haurren eta nerabeen bizitza nola baldintzatzen duen aztertzea eta konponbideak proposatzea.</p>	<p>Foro antzerkia.</p>	<p>50´</p>	<p>Paper jarraitua. Errotuladoreak.</p>
 <p>Hezkuntza-eremua</p>	<p>“Hezkuntzarekin hizketan”</p>	<p>Beste pertsona batzuek hezkuntzaren hainbat alderdiri buruz pentsatzen dutenari buruzko iritzia ematea eta ikertzea, bai eta haurren eta nerabeen pobrezia-egoerek hezkuntzako aukera-berdintasunean nola eragiten duten ere, eta hobekuntzak proposatzea.</p>	<p>Mahai-inguru bat antolatzea.</p>	<p>Jarduera hori hainbat saiotan banatuta dago, mahai-inguru bat antolatu behar.</p>	<p>Internerako konexioa duen ordenagailua. Folioak. Boligrafoak/ arkatzak. Paper jarraitua. Koloretako errotuladoreak. Mahai-ingururako behar diren materialak.</p>
 <p>Aisia- eta kultura-eremua</p>	<p>“Kultura-ikuspegiarekin”</p>	<p>Haurren eta nerabeen artean eta haien bizitza garatzen den inguruneetan aisialdiko eta kulturako aukerak zerk baldintzatzen dituen hausnartzea eta irtenbideak proposatzea.</p>	<p>Gidoiak egin eta TikTok motako bideoak grabatu.</p>	<p>50´</p>	<p>Folioak. Boligrafoak. Telefono mugikorrak.</p>
 <p>Osasun-eremua</p>	<p>“Osasuna, izkinik gabe”</p>	<p>Haurtzaroko eta nerabezaroko pobrezia-egoerek osasun-baliabideak eskuratzea nola zailtzen duten, mundu guztiarentzat aukera-berdintasunik ez egotea zerk baldintzatzen duen eta konponbideak proposatzea hausnartzea.</p>	<p>4 izkinen jokoa.</p>	<p>50´</p>	<p>Paper-orriak. Errotulagailu lodiak. Zeloa. Koloreetako post-itak. Boligrafoak. Joan-etorria zailtzeko tresnak: zapiak, sokak, etab.</p>



04 OHIKO GALDERAK

Zenbat jarduera egin behar ditu talde bakoitzak parte hartzeko?

Adin-talde bakoitzerako diseinatutako jarduera guztiak egitea gomendagarria izango litzatekeen arren, talde parte-hartzaile bakoitzak egin nahi dituen edo egin ditzakeen jardueren kopurua aukera dezake.

Fitxa eta jarduera-proposamena zehatz-mehatz jarraitu behar dira, agertzen den bezala?

Ez. Talde bakoitzak jarduera egokitu dezake, beste era batera garatu edo aukeratutako gai bera landuko duen jarduera propioa egin. Fitxa hezitzaile-taldeei garapena errazteko diseinatuta dago, baina ez da ezinbestekoa deskribatuta dagoen bezala garatzea.

Fitxan sartzen diren galderak soilik hartu beharko dira kontuan taldeen ondorio gisa zer gai jaso jakiteko orduan.

Zenbat denbora beharko da, gutxi gorabehera, jarduera bakoitza garatzeko?

Jarduera-fitxa bakoitzean kalkulaturako gutxi gorabeherako iraupena zehazten da. Talde bakoitzaren ezaugarrien, norberaren jardueraren prestakuntzaren eta talde-dinamikaren arabera, iraupen hori alda daiteke.

Nola helarazi behar dira ondorioak?

“Haurtzaroa eta pobrezia” prozesuaren webgunean sartuz (www.infanciaypobreza.org) eta ondorioen [formularioko](#) botoia sakatuz. Iritziak eta proposamenak formulario honen bidez baino ezin dira bidali.

Ezinbestekoa al da izena ematea jarduerak egiteko?

Bai. Horri esker, taldeen jarraipena eta laguntza egin ahal izango da, eta jakin ahal izango da nortzuk dauden prozesuan inplikaturik. Urrats hori garrantzitsua da ondorioak argitaratzeko eta nortzuk parte hartu duten eta nondik parte hartu duten kontatzeko.

Horrek ez du esan nahi jarduerak publikoak ez direnik eta edozein kolektibok edo pertsonak erabiltzeko irekiak ez direnik.

Inskripzioan, haurren izenak adierazi behar dira?

Ez. Ezinbesteko informazio gisa, taldearen eta erakundearen izena eta nesken eta mutilen gutxi gorabeherako adina baino ez dira eskatzen.

Posible al da web orri informatiboan izena ematea taldea inskribatu aurretik?

Bai. Webgunean izena emateko berariazko [formularioa](#) erabil daiteke, eta, ondoren, prozesuan parte hartu ala ez erabaki.

Garrantzitsua da adieraztea, azkenean, taldeak prozesuan parte hartu nahi badu, izena eman beharko duela [prozesuaren inskripzio-formularioaren](#) bidez.

Norengana jo zalantzarik izanez gero?

Kontsultak eta zalantzak izanez gero, Haurren Plataformako haurren partaidetzarako talde teknikoarekin harremanetan jar zaitezke

participacion@plataformadeinfancia.org

helbide elektronikoaren bidez.



HAUREN 70 ERAKUNDE BAINO GEHIAGOKO SAREA GARA

◀ AURREKOA | LABURPENA | HURRENGOA ▶



plataforma de infancia
españa





plataforma de infancia

españa

Haurren 70 erakunde baino gehiagoko sarea gara, haurren eta nerabeen eskubideak babestu, sustatu eta defendatzeko, Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren arabera.

Gure ikuspegia haurren eta nerabeen eskubideak erabat betetzea da, haurren erakundeen eta gizarte-eragile guztien ahalegina integratuz.

JARRI GUREKIN HARREMANETAN

C/ Escosura, 3. Local 2
28015 Madrid



info@plataformadeinfancia.org



91 447 78 53



FINANTZATU



JARRAI GAITZAZU

www.plataformadeinfancia.org



@platdeinfancia



@plataformadeinfancia



@plataformadeinfancia